



Sei gazte atxilotu dituzte Lapurdin

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 06/03/2024

U14 kolektiboaren ekintzen eta Baionan eman zen erretreten erreformaren kontrako manifestazio baten harira eraman dituzte atxilotuak.

Frantziako Poliziak sei gazte atxilotu ditu astearte goiz honetan, 6:00ak aldera, eta Baionako polizia etxera eraman dituzte momentuz. Horrez gain, atxilotuen senideek salatu dutenez etxeko ordenagailu eta mugikorrak ere hartu ditu frantses poliziak. Atxiloketak Urruñan (Lapurdi) eta Baionan eman dira; seigarrenari buruz ez dago informazio zehatzik oraingoz. Hauetako lauei azken bi urteetan uztailaren 14ko [manifestazioan](#) izandako ekintzetan parte hartzea leporatzen diete, konkretuki kalte materialak eragin izanaz, eta beste pertsona bati aldiz, erretreten erreformaren kontra Baionan izandako manifestazio batean izandako istiluetan parte hartzea leporatzen diete. Prokuradoreak jakinarazi duenez lau afera egozten dizkiete atxilotuei: andeatzeak, poliziaren kontrako erasoak eta Hendaia tren turistikoaren gidaria erasotu izana.

[twitter:twitturl:https://x.com/aske_eh/status/1765274798186229930?s=20]

<https://eh.lahaine.org/sei-gazte-atxilotu-dituzte-lapurdin>